

Idazleen Elkarteko epe berria

Otsailarean lean, larunbatez egin zuen urteroko bilera Euskal idazleen Elkartek. Idazle ugari bildu zen Hotel Amara Plazako areto nagusian. Bi ekintza nagusitu ziren bertan: bata, ohorezko kide berriak izendatzea izan zen: Bitoriano Gandiaga, Juan Mari Lekuona, J. L. Alvarez Enparantza Txillardegia, Dionisio Amundarain, Juan Garmendia Larrañaga, J.M. Satrustegi eta J. J. Azurza. Ekintzaren barnean ezarri zien ohorezko ezaugarria ordurarte azken lau urteetan lehendakari izan den Joxerra Garciak.

Batzordekideen aldaketa emateko garaia zenez gero, aurrekisu-ta zegoen bezala Andolin Eguzkitza izan zen Joxerraren ordeh lendakari berri izendatua, hurrengo lau urteetarako eta Yolanda Arrieta, Patxi Zubizarreta eta Andolin Eguzkitza batzordekideen ordeh, ostera, Enkarni Genua, Anton Luku eta Joanes Urkixo izan ziren hautatuak. Iñaki Zubeldiak, Idazleen Elkartek berak hala eskatuta, urte bat gehiago jarraituko du batzordean Maite Gonzalezek esan zuenez, "batzordean lana nola egin behar den ondo daki, eta aurten ere gauza berri asko antolatu behar ditugulako".

Aurten ere Euskal Idazleen Elkartek asmo asko eta berriak ditu aurrera eramateko. Egats aldizkariaren zenbaki berria argitaratzeko zorian dago eta Lizardiren omenez egindako mahainguria argitaratuko da. Hainbat literatur mintegi ere burutuko da datozen hilabeteetan. Maite Gonzalezek dioenez, "gure asmoa da hiriburuetatik at egitea ekitaldiak kultur etxeak eta biblioteka publikoak baliatuz. Nolanahi ere, Bidebarrieta Kulturgunean gauza parebat antolatu genituen iragan denboraldian. Horko ateak zabalik dauzkagu eta gure asmoa da ekitaldi gehiago antolatzea".

Idazleak ikastetxeetan programari buruz, gero eta eskaera gehiago eskuratzen ari da Idazleen Elkartea: "Ezin gara iritsi eskaera guztietara, eta ez dakigu noiz izango dugun erantzuteko modua. Programak harrera izugarria izan du".

Euskal Idazleen Elkartek 178 kide dauzka eta Andolkin Eguzkitza lehendakari berriak azaldu zuenez, gutxitxo da hori, batik batik ikusiaz zenbat idazle dagoen gure artean, 284 idazle badira idazleen unibertsoan, eta zer esanik ez, itzultzaile, saiakeragile, kazetari

eta gainerakoak gogoan baldin baditugu. Bere ustez "jende asko kide bihurtu behar da sortzaile izan gabe idazle direnen artean."

Bestalde uste du Eguzkitzak Gobernuarekin hitzarmen sendo bat egin behar dela, modu finko

batez euskal literatura gaztelaniara itzulia izan dadin.

Gure lerro hauen bitartez, Idazleen Elkarteari eta , nola ez, Andolin Eguzkitzari gure zorionak eta adorea igortzen dizkiogu.

G.E.